

# Egungo norabide batzuk eta hizkuntzen ikuspegi ekologikoa<sup>1</sup>

**Jon Sarasua<sup>2</sup>**

*HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea*

jon\_sarasua@huhezi.edu

Sarrera-data: 2011-10-11 | Onartze-data: 2011-12-22

**Laburpena.** Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Unibertsitateko Udako ikastaroetan Jon Sarasuak *Euskaldungoaren egungo beharrak eta hizkuntza-ekologia* izenburupean eginiko hitzaldiaren muina biltzen du artikulu honek. Hizkuntza-ekologiaren definizio labur batetik abiatzen da: hizkuntza-ekologia *etika duen jakintza da, jakintzara daraman begiratu etikoa*. Balio etikoen ideiak garatuz, dagoenaren aurreko jarrera zaintzailea finkatuz, dibertsitateak nola funtzionatzen duen jakintzara jauzia egin beharraz hitz egin du, ikuspegi praktiko batetik abiatuta. Helburua gehiago jakitea da hobeto zaintzeko. Sarasuak, bestalde, euskal komunitatearen ibilbide historikoa etika ekologikotik hurbil kokatzen du *jarraidura* eta *irekidura* kontzeptuak elkarlotuz: *jarraidura* emandakoari jarraipena emateko gizakion sen kultural modura definituta eta *irekidura* unean unekoari zabalik egotearen jarrera- modura definituta. Nolanahi ere, euskararen iraunkortasunaren alde euskal komunitateak kontuan izan beharreko hainbat ideia plazaratzen ditu, esate baterako, gaur egun euskaldun izateak borondate edo ahalegin berezia eskatzen duenaren ideia, eta hurrengo belaunaldietan hala eskatuko duela. Azkenik, aurrean dagoen desafio handiari aurre egiteko jauzi kualitatiboak beharko direla planteatzen du, bai eskumen-arloan eta baita estrategia-mailan ere. • **Hitz-gakoak:** *gizarte-erantzukizuna, hizkuntza-ekosistema, eredu ekologikoa, gizarte globalizatua.*

**Abstract.** **Some current orientations and the ecological perspective of languages.** This paper covers the main points of a lecture entitled *Euskaldungoaren egungo beharrak eta hizkuntza-ekologia* (*Current needs of Basque speakers and language ecology*) and delivered by Jon Sarasua during the summer course of the UPV/EHU-University of the Basque Country organised in collaboration with the Sociolinguistics Cluster. It starts with a short definition of language ecology: language ecology is *knowledge with ethics, an ethical view that leads to knowledge*. From the starting point of a practical perspective, he dealt with the need to take a leap towards knowledge about how diversity functions by developing ideas about ethical values and by establishing an attitude for preserving what exists. The aim is to know more in order to preserve more effectively. Furthermore, Sarasua puts the historical track record of the Basque community close to ecological ethics by linking together the concepts *continuity* and *openness*: *continuity* defined as the cultural instinct of human beings to continue what has been given, and *openness* is specified as the attitude of being open at each moment. Nevertheless, he raises many ideas that the Basque community needs to take into account in favour of the sustainability of Basque, like the idea that being a Basque speaker nowadays calls for willingness or a special effort, and that in the coming generations there will also be a call for this. Finally, he says that qualitative leaps will be needed to face the great challenge ahead, both in the areas of competences and on the strategy level as well. • **Key words:** *social responsibility, language eco-system, ecological model, globalised society.*

Oharra: Testu hau aurrez idatzi gabeko ahozko jardun baten transkripzioan oinarritu da, bat-bateko elementuak ditu eta ez ditu artikulatu idatzi baten ezaugarri formalak.

## SARRERA

Gaur dugun gaiari heltzeko izenburua, akaso, anbiziotsu xamarra da: *Euskaldungoaren egungo beharrak eta hizkuntza-ekologia*. Modu soilago batean ideia batzuk emango ditut, azken urteetan inguruan ibili eta foro desberdinetan konpartitu ditudanak. Hasi aurretik esan behar dut azken 10 urteotan ez naizela buru belarri gai hauetan ibili, gai sozioekonomikoetan eta kooperatibagintzaren alorrean zentratu bainaiz gehiago. Nola bait esan, ez naiz teoriko bat edo teoriak erkatzen eta sakontzen ari den lagun bat. Kudeaketa-lanetan ibili naiz nagusiki azken dozena bat urteotan eta, horregatik, nire begirada normalean organikoa izan ohi da, hau da, hizkuntzaren alorrean -edo alor sozio-ekonomian- eragiten ari diren erakundeetako eta elkarteetako estrategiari begira dagoen pentsamendua. Hori da beraz nire abiapuntua. Egia da, nolana ere, kontu teorikoak ere aipatuko ditudala, baina esandako ekintza-ikuspegi horretan kokatuz nire abiapuntua.

Aipatu nahi nuke azken denboratan gogoeta batzuk egin behar izan ditudala euskalgintzaren inguruan, esate baterako, *Euskal Kulturgintzaren Transmisioko Graduondoan* edo Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kultur-gintzaren strategiari buruzkoak. Hortik abiatuta saiatu naiz honako testu hau prestatzen. Ez dut goitik beherako hitzaldi akademiko egituraturik prestatu; saltokako ahozko solas batean niretzat inportanteak diren ideia batzuk edo ideia-ingurune batzuk aurkezten saiaturik naiz.

## AZKEN URTEETAKO ARRANGURAK

Hasteko, azken urteetan konpartitu dudana arrangura batetik abiatuko nintzateke. Uste dut azken hamarkada hauetan hizkuntzaren gaia kudeatzeko fundamentu eskas xamarra ibili dugula gure herrian, oro har. Klase politikoak batetik, eta idazle edo kultur-gileek bestetik, ez dute kontuan hartu hizkuntzaren garapenari buruzko gutxieneko jakintza oinarritzeko bat. Ideia horren inguruan ez naiz harago joango, baina konparatu nahi nuke, esate baterako, ekonomia-arloko praktikarekin. Hau da, krisiaz denok eman dezakegu iritzi edo erantzun bat (nik ere badaukat nirea) baina, tira, ekonomiaz titularrak emateko edota elkarrizkeatua izateko jakin behar du batek ildo marxistak, klasikoak eta neoklasikoak zer dioten, hau da, errigore pixka bat, teoria ekonomikoaz zerbait jakin beharko da, ezta? Hizkuntzaz, berriz, badirudi idazleek eta politikariek edozer gauza

---

**Hizkuntzaz  
badirudi idazleek  
eta politikariek  
edozer gauza  
esan dezaketela  
edo iritzi aditua  
eman. Iritziak,  
jakina,  
interesgarriak  
dira, metafora  
politik izan  
daitezke, baina  
badago  
gutxieneko  
jakintza bat  
ezagutu behar  
dena.**

**Ekologia, oro har, balio-multzo batetik abiatzen da; etika bat da, errealitateari, biziari begiratzeko modu bat, ez da begiratzeko modu posible bakarra. Hautazko balio-multzo bat da. Nik honako bi kontzeptuotan laburtzen dut: erreberentzia eta zainketa.**

esan dezaketela edo iritzi aditua eman. Iritziak, jakina, interesgarriak dira, metafora politikak izan daitezke, baina badago gutxieneko jakintza bat ezagutu behar dena, hizkuntzak baditu dinamika batzuk.

Bestetik, iruditzen zait azken urteetan hizkuntzaren gaia ideologia modernoetatik kudeatu dugula. Izan, ideologia modernoek kume gara guztiok, bai ideologia progresista hegemonikoan eta baita eskuineko ideologia deiturikoetakoetan ere; denek patroi bera dute. Nolabait esan, Frantziako Iraultzan edo Ilustrazioan sortutako obsesio ideologiko eta terminologiko batzuen kumeak dira ideologia horiek guztiak, batzuk berdintasunaren ildotik eta beste batzuk askatasunaren ildotik, ideologia liberalak eta sozialistak, hor dago gure unibertso ideologikoa.

Ideologia modernoek markatzen dute euskaldunongan ideologiaren arteko abanikoa. Modernitateak ez du ekoiztu nortasunari, identitateari, hizkuntza-komunitateari buruzko pentsamendu bat, gramatika bat. Askatasunaren inguruko pentsamendua, gramatika edo ideologia ekoiztu dute, baita berdintasunaren ingurukoa ere. Hori izan da XX. mendeko lehia: berdintasuna *vs.* askatasuna, eta oraindik hor gaude, hipermerkatuko askatasunean bermatu nahirik eta berdintasunaren inguruan tematuta beste gai batzutan. Baina *liberté, fraternité, égalité* horretan ez zegoen *identité*.

Esango nuke pentsamendu progresistak ez duela nortasun minorizatu bat garatzeko edo munduan identitate kulturalen aniztasuna kudeatzeko gramatikarik ekoiztu, eta aldi berean ideologia horiekin ari garela lanean, ideologia horien kumeak izaten jarraitzen dugula, ez dakigula ezer pentsatzen 'askatasuna' eta 'berdintasuna' izeneko totemen arabera ez bada. Hizkuntzaren gaia ere bi totem horien arabera legitimatzen saiatzen gara bakoitza bere sentsibilitatetik, baina hortik ez da oso urrun iristen. Gure alderdi politikoei eta gure pentsalariak ideologia modernoekin hizkuntzaren gaia kudeatu nahian dabilta, baina hizkuntza komunitateen dinamikak ulertzeak gehiago eskatzen du.

Iruditzen zait hizkuntzaren garapenak behar duela berariazko jakintza propio bat, eta nolabait badela bide horretan aurreapenik, planteatzen hasi direla jakintza-bide propio batzuk, gramatika baterako elementuak.

## **HIZKUNTZA-EKOLOGIAZ. ETIKA DUEN JAKINTZA - JAKINTZARA DARAMAN BEGIRATU ETIKOA**

Nire ustez, hizkuntzen ekologia izan liteke lehen aipaturiko jakintza-bide hori izendatzeko modu bat. Hizkuntzen ekologia etika bat da, eta

jakintza bat. Bi alde dituen txanpona da; ondoren, hirugarren bat ere erantsiko diogu, ekintzarena edo mugimenduarena.

Ekologia, oro har, balio-multzo batetik abiatzen da; etika bat da, errealtateari, biziari begiratzeko modu bat, ez da begiratzeko modu posible bakarra. Hautazko balio-multzo bat da. Nik honako bi kontzeptuotan laburtzen dut: *erreberentzia* eta *zainketa*. Azken finean, ekologia existitzen den aniztasun abarkaezin, ulertezin eta etengabe gainditzailen horrekiko errespetuzko erreberentzia da. Hau da, *hau guzti hau* existitzen da bere aniztasun abarka-ezinean, eta horren aurrean nik erreberentzia egiten dut, errespetu bat adierazten dut eta, ondoren, hori zaintzeko hautu bat egiten dut. Zergatik? Delako, existitzen delako.

Zentzu horretan erreberentziaren eta zainketaren etika hori transbertsala da bizitzaren alor eta maila guztietan, fisikoan, biologikoan zein maila kulturean ere, bizitza edo errealtatea geruza asko dituen espiral erraldoi moduan ulertzen badugu. Nolabait, bizitzaren errealtatea, ulertzen ez dugun errealtate eskerga horrek hartzen dituen maila desberdinen orotarako begiratu bera da: existitzen den aniztasunaren aurreko erreberentzia eta horren zainketa egiteko hautu bat, zainketa egiteko edo, gutxienez, ez aldatzeko edo ez murrizteko. Zentzu horretan, ez naiz ekologia biologikotik hizkuntzetara analogiak egitearen oso aldekoa, ez baitaukagu analogiarik egin beharrik. Hau da, ekologia biologikotik antzekotasunak bilatzea ea hizkuntzetara zer aplikatu dezakegun erabakitzea, ez da beharrezkoa. Ekologia modan dagoenez, hizkuntzetara aplikatzen saiatzen dira batzuk, politikoki politikak izateko. Antzekotasun horiek, sarri, fortzatuak eta disfuntzionalak ere izaten dira. Ekologian batasuna ez dago analogietan edo antzekotasunetan, baizik eta sakonagotik doan etika transbertsal batean.

Beraz, ekologia etika moduan ikus dezakegu, eta etika horretatik sortzen da jakintza baterako bidea, logosa. Ekologia azkenean *logos*-a da, jakintza bat, zientziaren adar bat. Beraz, hurrengo pausua honakoa da: erreberentzia eta zainketarako hautu horretatik jakin dezagun orain nola funtzionatzen duen dibertsitate honek, nola funtzionatzen duen bizitzak, zer diren habitatak, nola funtzionatzen duten ekosistemek. Zergatik? Jakin nahi dugulako kudeatzen asmatzeko, zaintzen asmatzeko. Ekolinguistika soziolinguistika da, eta psikolinguistika.

Beraz, etika bat duen jakintza da hizkuntza-ekologia, eta hizkuntzen dinamikak ulertzeko nahiz kudeatzeko jakintza eragilea garatzen duen begiratu etiko bat. Horrela esanda polita dirudi, baina jakintza hori politikoki esanguratsua da, benetan etika eta jakintza izaten hasten denean.

---

**Hurrengo pausua honakoa da: erreberentzia eta zainketarako hautu horretatik jakin dezagun orain nola funtzionatzen duen dibertsitate honek.**

**Zergatik? Jakin nahi dugulako kudeatzen asmatzeko, zaintzen asmatzeko.**

**Gure esperientzia kolektibo eta historikoa oso gertu dago zainketaren etika bat garatzetik.**

**Bizitzen uztearen aldarria, espazio minimoaren eskea, aniztasunerako ekarpena, bere izatea garatu nahia, eta abar hizkuntza-ekologiaren begiratutik hurbil dauden kontzeptuak dira.**

## **EUSKALDUNON IBILBIDE HISTORIKOA ETIKA EKOLOGIKOTIK HURBIL**

**I** Iruditzen zait, euskaldunon ibilbide historiko honek mindura, ahalegin eta neke sentimendu bat utzi digula. Eta horrek nahiko modu naturalean hurbiltzen gaitu etika ekologiko batera. Hau da, gure esperientzia kolektibo eta historikoa oso gertu dago zainketaren etika bat garatzetik. Esate baterako, hartzen duzu Joxe Migel Barandiaran zenaren esaldi bat, eta hizkuntza aipatuz ekologiari hitz egiten ari da. Zergatik sortu zaio begiratu hori? Bizitzen uztearen aldarria, espazio minimoaren eskea, aniztasunerako ekarpena, bere izatea garatu nahia, eta abar hizkuntza-ekologiaren begiratutik hurbil dauden kontzeptuak dira. Ez dira teoriak; horiek gurasoek guri transmititu dizkiguten aldarteak dira, gure bagaje historiko horrek utzi dizkigun aldarteak. Zentzu horretan, zaintzeari eta maitatzeari buruzko bagaje propio bat badugula pentsatzen dut, eta etika ekologiko batetik gertu jartzen gaituela.

Testuinguru honetan gogoratu nahi nuke duela urte dezente idatzi nuen honako *dezima* hau:

“Aunque el pasado esté lleno  
de afrentas, pone freno  
al recibido desprecio  
convirtiéndolo en aprecio  
por lo propio y lo ajeno”.

Etika modu hori handietsi nahi ez nukeen arren, eta bere alde ilunak dituen arren, hor badago ariketa bat, gure ibilbideak eta oro har hizkuntza gutxituen esperientziak ematen diguna.

## **HIZKUNTZA-EKOLOGIA JAKINTZA MODURA**

**I** Ekologia etika izateaz gain jakintza ere badela esan dugu. Jakintza hori habitaten funtzionamendua aztertzen edo hizkuntzak hiltzearen arrazoiak aztertzen hasten da. Eta horrek arazoak sortzen ditu. Zein dira bizi-iraupeneko gutxieneko baldintzak? Zer dagokio hizkuntza bati bere bizia garatzeko? Hortik abiatzen da gauza ez hain politak esateko bidea, izan ere, ekologiaren alde polit inozo horretan denok ados gaudela dirudi. Baina ekologia bizitzaren legeak planteatzen hasten denean, gutxieneko baldintzei buruz hau edo hura esaten duenean terreno konplikatua xamarrean sartzen da.

Izan ere hizkuntzen inguruan zer esan? Ez dut itzultzeko astirik izan baina gaztelaniazko liburu baten hitzaurrea idazten ari naiz orain, eta hortaz zerbait esaten dut eta, hala, dagoen bezala esango dut: (Ecología de las lenguas. Orekan. Xamar. Pamiela, 2011).

“¿Y las lenguas? ¡ah las lenguas! Pocas veces se otorga a las lenguas la dimensión que realmente tienen. Las lenguas son el corazón de las culturas. Las lenguas son gigantes andamiajes civilizatorios de una asombrosa diversidad y exhuberancia. Las lenguas son los más profundos y sofisticados edificios culturales que dan base a la existencia social de las comunidades. Las lenguas son esos nucleares flujos que vehiculan lo humano. Pero esta importancia de las lenguas se oculta o se desvirtúa por una razón fácil de entender. Es tal el impacto que supone para ellas el ejercicio del poder asimétrico, y resulta tan espinoso gestionar políticamente algo tan crucial que se opta por restarle valor. Y es que si les diéramos a las lenguas la dimensión que tienen todos los discursos políticos se complicarían más de lo que quieren. Las lenguas constituyen seguramente una de las realidades más complicadas y hondas de gestionar para un mundo que se atreva a administrar la diversidad de la experiencia humana sobre la tierra. ¿Cómo acercarnos a ellas, sabiendo que entramos en un terreno político minado, con una mirada ecológica?”

## EUSKALTASUNAREN NORABIDEA. JARRAIDURA ETA IREKIDURA

Hau da esan nahi nuena, “...entramos en un terreno político minado”. Hizkuntza-ekologiaren jakintzaren konplikazioa adierazi nahi du, lur politiko konplexuan sartzen garela. Hizkuntza-ekologiatik mila galdera eta mila teknika garatu daitezke, baina euskararen kasuan planteatzen den galdera honakoa da: euskara bezalako hizkuntza minorizatu bati bere jatorrizko duen lurraldean eta berak garatzeko duen lur propio baka-rean funtzio hegemoniko batzuk betetzea badagokio edo ez? Hori da galdera lodi bat. Galdera hori ez da momentu honetan planteagarria gure eskema instituzionalean. Eta normalean politikoki planteagarria dena murrizten dugula gure planteamendu intelektuala. Hala ere, galderaren erantzuna baiezkoa balitz, zein dira eman beharreko pausuk hegemonia-guneak sortu hizkuntza-komunitatea bere funtzio batzuk taxuz betetzen hasteko? Abiapuntu horretan kokatzen naiz.

Hortik aurrera praktikorako material beharrezko batzuk aipatzera joango naiz, egin nahi dugunaren errealitatea irakurtzeko gako batzuk, beti ere helburua galdera honetan jarrita: zein da euskaltasunaren norabidea? Horretarako erantzun-materialak biltzen hasi behar dugu.

---

**Jarraidura  
deituko nioke  
gizakiok dugun  
sen kultural bati.  
Sen oinarizko  
bat: eman  
digutenari  
jarraipena  
ematea, jaso  
dugunean gure  
nortasuna  
txertatzea eta  
hori ondorengoei  
pasatzea.**

---

***Irekidura da  
unean unekoari  
zabalik egotea:  
ingurukoek  
ekarri  
digutenari,  
inposatu  
zaigunari, sortu  
diren eraginei,  
teknologiari...  
zabalik egotea.***

Iraganera begiratuz hasteko, gure bidea ulertzeko bi kontzeptuen arteko oreka erabiltzea gustatzen zait, bata *jarraidura* da eta bestea *irekidura*.

*Jarraidura* deituko nioke gizakiok dugun sen kultural bati. Sen oinarizko bat: eman digutenari jarraipena ematea, jaso dugunean gure nortasuna txertatzea eta hori ondorengoei pasatzea. *Jarraidura* gara gizakiok, fluxu erraldioen eramale. Ez hizkuntzan bakarrik: nire etika ez da nik asmatua, nire begiratu espiritualaren materiala —baldin badaukat— ez dut nik ekoitzi, ni orain hizketan ari naiz eta hitz hauek ez ditut nik asmatu, ni gauza askoren *jarraidura* naiz. Zentzu horretan, fluxu batean kontzienteki kokatzen naiz hurrengoei pasatzeko. Uste dut hizkuntzan, kulturen, erlijioan, etikan... denean egiten dugula hori, baina euskaldunoi tokatu zaigula bereziki, horretan esperientzia berezia bizitzea. Beharbada hedapeneratz gehiegi jo ez duen komunitate bat izan gara. Hizkuntza indoeuropar handiak oso hedatu-zaleak izan dira, joera hori ondo aztertua eta dokumentatua dago; espazioaren koordinadan hedapen handia izan dute, eta badirudi guri hedapena baino gehiago egokitu zaigula iraupena, nahita edo nahigabe. Denboraren koordinadan irauteko sen hori nolabait izan da komunitate honetan. Zentzu horretan, fluxu-ariketa hori egiten asmatu duen komunitate bat izan da. *Ura eskutik eskura pasatzeak* badirudi zerbait ukitzen digula barruan, zerbait dardaritzen digula, eta horretan gabiltzala oraindik ere. Beraz, fluxuaren *jarraidura*: etorri zaigun horri jarraipena ematea.

Beste kontzeptua *irekidura* da. *Irekidura* da unean unekoari zabalik egotea: ingurukoek ekarri digutenari, inposatu zaigunari, sortu diren eraginei, teknologiari... zabalik egotea. Unean-unekoa jasotzea, ikastea eta liseritzea. Euskararen *corpusa* bera da horren adibide. Eta gure kultura osoa. Ez dakiguna da nola asmatu zuten *irekidura* hori eginez *jarraidura* ere bermatzen eta hizkuntza komunitate bezala irauten. *Jarraidura* eta *irekiduraren* arteko oreka dinamiko hori da, ziurrenik, gure euskaltasun honen ariketa behinena. Hala, nik jaso dudana euskara ez da seme-alabei transmititzen ari naizen bera. Saiatu naiz gurasoen euskara ia dena jasotzen; gurasoen hizkuntza baliabide eta estiloaren %100 jaso badut hor *jarraidura*-ariketa handi bat egiten da, eta seme-alabei errieta egin behar diedanean ere gure aitak egiten zigun tonu berean egiten dut oharkabean edo ohartuki, esaldien doinuan ere ba baitago *jarraidura* bat. Baina aldi berean, pasatzen ari naizen euskara desberdina da, etengabe ekoizten ari delako euskara *irekidura* batekin, nire ekarpenetatik, ingelesetik, gaztelaniatik, terminologiatik eta abar. *Jarraidura* eta *irekiduraren* arteko oreka hori da gakoa. Hizkuntzaren korpusean bezala

gure kulturgintzan eta material kultural osoan. Nik uste dut oreka hori hiztun kate honen historiaren gakoa dela, *Xamarrek* asko azpimarratzen duen bezala, kontuan hartuta pasabidean dagoen herri bat izan garela.

## BERTSOLARITZAREN DILEMA?

Oreka hori kultura orok egiten du, baina gure kasuan modu ezohikoan egin behar izan dugu, eta bereziki gako garrantzitsua da guretzat. Azken aro honetan ere modu intentsoan ari gara ariketa hori berritzen, arlo guztietan, korpusean nahiz kultur sorkuntzan. Nik gertutik ezagutzen dut, adibidez, bertsolaritzaren bidea. Hor jarraiduraren eta irekiduraren adibide nabarmen bat bizi izan dugu, gure erara egin dugu ariketa hori. Orain dela 25 urte Bertsozale Elkarteak sortu zenean bertsolaritzaren munduak hautu berezi bat egin zuen, eraketaren hautua: *Sor dezagun mugimendu zabal bat, eta sor dezagun erakunde bat mugimendu horren erdigunetik bertsolaritza gidatuko duena. Merkatuen indarrei edo instituzioei utzi gabe honen gidaritza, gida dezagun geuk, bertsolaritzaren eragileok, autoeraturta.* Eta gidatze horretan bertsolaritza kudeatzeko, bizitzeko eta birsortzeko hautu kolektiboa bizi izan da.

Kolektibo horri planteatzen zitzaiona hori zen, besteak beste. Zer jarraiduratik? Zer irekiduratik? Inportantea da ikustea hori ez dela inoiz dilema bat. Problema bat da, baina ez dilema bat. Arazoa da jarraidura eta irekidura nola uztartu erabakitzea, eta hori sen onez egitea. Bertso-laritza gidatu duen gure belaunaldiak nahiko modu jolastia izan du hori egiteko, desenfadatua. Bertso-laritza ez zaigu interesatu kontserbatzeko, sortzeko baizik. Eskola, telebista, eta mila distortsiotan sartu ginen, jakinaren gainean. Idazle esanguratsuen ahotik entzun genuen 'benetako' bertsolaritza lehengoa zela, eta bide naturaletik ateratzeko arriskua genuela. Gure erantzuna izan zen bertsolaritza sorkuntza dinamiko moduan interesatzen zitzaigula eta ez gintuela arduratzen kanonak betetzeak, ahozkoak edo idatzizko kulturak izan behar omen zuenaz. Batetik jarraidura-sen handia izan da bertso munduan, Xenpelar eta Txirritaren doinutan kantatzen da eta zortziko handian, eta zortziko txikian. Jardurearen muina, inprobisazio biluzia, osasuntsu dago, eta formatako gehienak ere aspalditik datoz. Bestetik, egungo bertsolariak beren erreferentziak tradizioaz gain zinetik, marrazki bizidunetatik, handik eta hemendik hartzen dute material kulturala bilduz, eta guztiarekin kantu inprobisatuaren muina egungo masa kulturaren txertatu da neurri batean, bestelako zirkuituez gain, eta ekosistema bat osatzen du une honetan bertsolaritzaren mugimenduak.

---

**Tradizioa sorkuntzen pilaketa bat da, ez da hor geldirik dagoen zerbait, baizik eta sorkuntzen kate bat. Tradizioei leiala izateko modu bakarra katea segitzea da, baina katean segitzeko sortu egin behar da, eta sortzeko nahastu egin behar duzu, konbinatu, bestela egiten duzuna kopiatzea besterik ez da.**



---

**Gaur egun  
euskaldun  
izateak nahimen,  
borondate  
ahalegin berezi  
bat eskatzen du,  
eta ziurrenik  
hurrengo  
belaunaldietan  
ere euskaldun  
koherente eta  
konpetente  
izateak eskatuko  
du nahimen  
berezi bat.**

Tradizioa sorkuntzen pilaketa bat da, ez da hor geldirik dagoen zerbait, baizik eta sorkuntzen kate bat. Tradizioei leiala izateko modu bakarra katea segitzea da, baina katean segitzeko sortu egin behar da, eta sortzeko nahastu egin behar duzu, konbinatu, bestela egiten duzuna kopiatzea besterik ez da.

Dena dela, horrela esanda badirudi jarraidura eta irekidura uztartzearekin aski dela. Ez da horrela: praktikan ez da batere erreza, gauza kutre pila bat egin bailitezke. Kontua da nola egiten den. Eta bertsolari-tzan ere kutretasunerako bidea labaina da, denetik gertatu da. Gakoa dago jarraidura eta irekidura nahastean, baina ez nolana: kultura interesgarria, humanizatzailea eta sortzailea ekoiztuz hori nola egin da kontua. Eta gaur hori aipatu badut zeragatik da: kulturgintzan hori kalitatez egiteak hiztun komunitatearen muina elikatzen duelako.

## **MOTIBAZIOAREN SUSTRAIARI BURUZ: HIRITAR ESTANDARRAK?**

**I**

Gure belaunaldian eta gure ondorengoan, euskaraz bizitzea hautu bat izango da, hori erakusten digu gure errealitatea zorrotzasun apur batekin irakurtzeak. Eta gure seme-alaben belaunaldikoei, eta oraingo gazteek, zer motibazio izango dute? Ezinbestekoa izango ez zaielarik, eta erraza ere ez askotan, zergatik egingo dute –egitekotan– euskaraz bizitzeko hautua? Unibertsitateko gelan, edo bestelako irakasle izanda edo guraso izanda, denok ikusten dugu hizkuntzaren erabilerarekiko gaur egungo belaunaldiak beste atxikimendu-modu bat dakartela, eta hor kudeatzen ez dakigun arazo-mundu berri bat datorkigula. Zergatik egingo dute, egingo dutenek, euskaraz bizitzeko hautua? Ziur asko ez dute edukiko gure belaunaldien hautu ideologiko solido hori. Kultura likidoagoa izatearekin batera, ingelesaren eta gaztelaniaren mundu askoz zabalagoak, interesgarriagoak, aberatsagoak izango dituzte “*just in time*”, hau da, inolako ahaleginik egin beharrik gabe, etengabeko *klik* aukeran, eta eguneroko bizitzan. Eta, lehen aldiz hain modu masiboan, beste hainbat hizkuntzatan eta hain erraz olde askoz aberatsagoa egunero eskura izango duten belaunaldiak izango ditugu, minutuero hautuak egiteko aukerarekin. Hor euskararen habitata berria da. Eta gordina da.

Gaur egun euskaldun izateak nahimen, borondate ahalegin berezi bat eskatzen du, eta ziurrenik hurrengo belaunaldietan ere euskaldun koherente eta konpetente izateak eskatuko du nahimen berezi bat. Askotan gure klase politikoak -eta baita gure hizkuntza-pentsalariek ere- etorkizuneko euskalduna irudikatzen du hiritar estandar baten eskeman, ahalik

eta normalena, hau da, hiritar estandar normal batek izan dezala euskaldun izateko aukera. Eta hori hala izateko borondatea ondo dago, baina hori hala balitz bezala egiten dira planteamenduak, eta normalizazio-fikzioa disfuntzionala izaten hasten da batzuetan. Neurri batean hala da, baina beste neurri batean ez: hiritar estandar batek (madrildar batek, paristar batek...) ez du bere hizkuntzan bizitzeko nahimen, borondate, ahalegin esplizitu berezirik egin eta elikatu beharrik, eta euskaldunak bai. Datu hori saihestek analisi eta estrategia guztiak distrotsionatzen ditu. Beraz, ikuspuntu soziologikotik beste aldagai batzuk sartu behar ditugu entsalada horretan, euskaldun komunitatearen garabideak ulertuko baditugu.

Zentzu horretan, nahimen eta borondate horrek ahalegin bat eskatzen baldin badu, hori elikatu egin behar da. Garrantzia izango du fluxuaren eta jarraiduraren senak, horrek izango du gure etorkizuneko belaunaldietan ere indarra. Bestetik, hizkuntzak balio pragmatikoa ere beharko du. Baina bestetik balio erantsia eman beharko dio euskarak hiztunari, garbi egongo delako eskaintza uholdearen aurrean oso gauza mugatua dela gurea. Nahi dugun guztia egin dezakegu eskaintza kulturalen, interneten eta abarretan, baina jarraituko dugu gutxiengoa izaten, ziur asko gero eta eskaintza menu zabalagoen barruan txiki.

Beraz, begiratu soziologiko konplexuagoa egin beharko diogu gure komunitatearen ahalbide horri. Ez du balio soziologia handia bakarrik egiteak, joera global handiak omen direnak hemen aplikatuz. Hori oso ondo ikusia dago, baina oso erraza da. Gure komunitatearen joeren, kontra-joeren eta potentzialen antropologia eta soziologi txikia ere egin behar da. Ikusi behar dugu hiztun-hautua egiteko motibazioa ze zirkuitu motatan erreproduzitzen den. Gure komunitatearen indargune eta zirkuitu horiei adi egon. Gertuko gizarte-ehuna, adibidez, oinarrizkoa da gure kasuan. Edota aipa liteke kulturgintzaren garrantzia ere. Kulturgintza da hizkuntza-komunitate bati darion sorkuntza, ezta? Hizkuntza-komunitate horren erregai sinbolikoa ekoizten duen artefakto multzoa. Iruditeriak ekoizten du komunitate baten ametsa. Guretzat, esate baterako, Xabier Lete, Laboa eta abar gaztetxotan. Hiru-lau urterekin Aresti kantatzen genuen: *Ez gara aberatsak, ez gara zaldunak. Euskara guk dugu, gu gara euskaldunak.*

## NOLA GAUDE? BOTILA, ERDI BETEA EDO ERDI HUTSIK?

Euskararen komunitatearen koiuntura aztertzerakoan badagokigu halako bitasun konplexu bat kudeatzea. Alde batetik, arrangura errealista eta bestetik egin denaren tamaina balioestea.

---

**Garrantzia izango du fluxuaren eta jarraiduraren senak, horrek izango du gure etorkizuneko belaunaldietan ere indarra. Bestetik, hizkuntzak balio pragmatikoa ere beharko du. Baina bestetik balio erantsia eman beharko dio euskarak hiztunari.**

**Esate baterako, badugu egile serioen mezua, gutxi gorabehera esaten duena galbide gorrian daudela, pikutara goazela. Mota honetako meziek badituzte helduleku inportanteak. Beste muturrean kokatzen da diskurtso positiboa, inoiz ez garela hain ondo egon esaten duena, euskarak ez dituela inoiz hain datu onak izan, hainbeste baliabide eta hainbeste produkzio eta hainbeste hiztun; hori dela bidea, alegia. Bi ikuspegi hain urrunekoak izatea bada zerbaiten sintoma.**

Esate baterako, badugu egile serioen mezua, gutxi gorabehera esaten duena galbide gorrian daudela, pikutara goazela. Mota honetako meziek badituzte helduleku inportanteak. Beste muturrean kokatzen da diskurtso positiboa, inoiz ez garela hain ondo egon esaten duena, euskarak ez dituela inoiz hain datu onak izan, hainbeste baliabide eta hainbeste produkzio eta hainbeste hiztun; hori dela bidea, alegia. Bi ikuspegi hain urrunekoak izatea bada zerbaiten sintoma. Hizkuntza-komunitate baten intelektualak oso despistatua egon daitezke, baina hau ez da normala. Mediku batek minbizi terminal bat dela esatea eta besteak gripe bat dela esatea ez da oso serioa.

Uste dut aipatzen ari naizen bitasun konplexu horren kudeaketarako hizkuntza-ekologiaren edo soziolinguistikaren jakintza gehixeago behar dugula. Bitasun hori kudeatzea dagokigu. Alde batetik, arrangura, kezka errealista: esan dezakegu euskararen komunitatearen egoerak ematen digula kezkatzeko motiborik, ez gaudela ondo, diagnostiko medikuaren ikuspegitik osasunetik urrun gaudela. Bizi liteke pozik gaixorik egonda ere, hori aldarte kotua da, baina ez da ideia ona gaitzari bere izenez ez deitzea.

Arlo batzuetan indikadore gorriak keinuka ari dira, jarritako itxaropenak ez dira mamitu eta zenbait kasutan, urte batzuk alperrik galdu direla ere esan liteke kontu batzutan, hau da, gauzak hobeto egin ote litekeenaren sentsazioa. Denon aldetik azpimarratuko nuke, hau ez baita instituzio publikoei egiteko kontu-hartze edo kritika bat. Esan nahi dut guztion artean energia eta aukera batzuk alperrik galdu ez ote ditugunaren beldur naizela.

Dena dela, desafio zahar eta berri lodi xamar batzuen aurrean kokatzen da gaur egun euskararen komunitatea eta badira arrazoiak pentsatzeko jauzi kualitatiboak behar ditugula bai eskumen, bai tresna eta bai estrategia-mailan, mende honetan datorkigunari taxuz erantzun nahi baldin badiogu. Hori izango litzateke txanponaren alde bat, hau da, *desafio lodien aurrean tresna gutxiegiarekin gaudela* esatea.

Baina, bestetik, komeni zaigu ohartzea egin denaren tamainaz. Esan daiteke azken bost hamarkadatan bereziki, euskararen berreskurapenean eta garapenean egin dena itzela izan dela. Hor egon da amets-bulkada bat pizkundetik eta frankismotik datorkiguna. Azken bost hamarkadako tarreak aro bat osatu du. Euskara batuaren bilakaerarekin batera ikastolen mugimendua sortu zen garai hartatik hona egin dugun bidea, egin ditugun ahalegin eta lorpenen zerrenda itzela da. Uste dut ahalegin horiei guztiei aitorpena egitea badagokigula. Bai herri ekimeneko erakundeek —hor pisu handia egon baita— bai erakunde publikoei, eta

baita, milaka pertsonak egin duten ahalegin intimoari ere. Hori balioetsi behar dugu, denen kasuan, norberak merituak bere etxe politikora bakarrik eramaten ibili gabe.

Egin dena handia da, mundu-mailan gutxi dira horrelako berreskurapen-historiak herri ekimenean oinarrituak. Herri-bulkada zibilean eta bigarren fase batean herri-ekimen eta instituzio publikoen arteko konbinaketan oinarritu den hizkuntza-berreskurapenaren bidea izan da, partziala eta prekarioa. Une honetan munduko hizkuntza minorizatuaren plazan funtzio interesgarria bete dezakegu sortu dugun bagaje txiki honetatik.

Beraz, *botila* zer dago, erdi betea edo erdi hutsik? Nire iritziz, momentu honetan irudi horrek ez du balio; itzela baita bete duguna, baina oraindik botilari falta zaiona ere ikaragarria dela. Nola jaten da hori? *Botila* uste baino askoz luzeagoa da, edo zuloa dauka. Seguru asko bigarrena da: botilak zuloa dauka eta erritmo konkretu batetik gora betetzen ez bada husten hasten da.

Bakoitzak bere aldetik ikusten du, eta adibidez ezker abertzaleari gustukoago izan zaio ze hutsa dagoen esatea, ze gaizki egin diren gauzak, zenbat falta den eta hau ez dela bidea, —bere estrategia instituzio publikoak deslegitimatzea izan baita aro osoan—. Orain komeriak, erakunde publikoetan sartu eta norberak egiten duena justifikatu behar denean. Aldi berean, instituzio publikoen aldeko hautua egin duen nazionalismo klasikoari eta beste indarrei dagokie, nonbait, egin den guztia azpimarratzea, egindako apustuak legitimatzea, eta abar. Hiztun komunitatearen begiratu beregainago batetik, uste dut apustu politikoek justifikazioek baldintzatan ez duten analisi konplexuagoa egin litekeela.

Aldarte moduan, demagun hautatzen dugula egindakoaren pozean oinarritzea eta harrotasun horretatik saiatzea energia sortzen, datorkigunari aurre egiteko. Baina beti ere desafioaren loditasun horri beherapenik egin gabe. Ez du uste aukera bakarra denik, baina ez da aldarte-hauturik txarrena. Estrategiak sortzeko, batez ere, estrategia organikoak sortzeko.

## HEGEMONIA-GUNEA

Hegemonia-guneen inguruan dago hasieran bota dudana galderetako bat. Gurea bezalako hizkuntza bati badagokio edo ez hegemonia-gunerik? Ze funtzio-maila, ze hegemonia-maila legokioke funtzio batzuetan, gaur euskarari bere garapenerako? Hori da gaia. Hegemoniaren gaia ez da gai hutsal bat, baina kontuz ibili beharrekoa da maximalismotan erori gabe, diskrurtsoak egitea erraza baita, eta hala egon gara hama-

---

**Naizen bitasun  
konplexu horren  
kudeaketarako  
hizkuntza-  
ekologiaren edo  
soziolinguisti-  
karen jakintza  
gehixeago behar  
dugula.**

**Desafio zahar eta berri lodi xamar batzuen aurrean kokatzen da gaur egun euskararen komunitatea eta badira arrazoiak pentsatzeko jauzi kualitatiboak behar ditugula bai eskumen, bai tresna eta bai estrategia-mailan, mende honetan datorkigunari taxuz erantzun nahi baldin badiogu.**

rraldi batzutan, diskurtsoen eta errealitatearen arteko amildegi handiegi batekin. Aldi berean, orain arte klase politiko batek ipar moduan jarri duen elebitasun sozial orekatuaren balizko utopia okerra dela seinalatu behar da. Seinalatu behar da ez direla horiek hizkuntzen dinamikak, hizkuntzen dinamikak erakusten digute balizko elebitasun orekatuak desorekatzera jotzen duela etengabe, hizkuntzek hegemonia-guneak behar dituztela eta ez dagoela simetriarako tarterik funtzio gehienetan.

Hegemonia-guneena edo dentsitate-guneena azaltzeko jar daitezke mila adibide, esate baterako, trantsizio osteko egunkariena. Garai hartan indar abertzaleek egunkari elebidunak egingo zituztela irudikatu zuten, nazionalismo klasikoak berea eta ezker abertzaleak berea. Hau da, elebiduntasunaren paradigma aplikatu nahi izan zioten bere egunkari *Deia* eta *Egin-i*. Zer erakutsi digu bideak? Egunkari elebidun batek ez duela funtzionatzen; elebitasunaren espazio gehienetan handiak txikia jaten duela etengabe, funtzio batzuetan ez, baino besete askotan bai. Beraz, ikasi dugu hegemonia-guneak behar direla, euskarak behar dituela, *Berria* behar zela, ez *Deian* eta *Eginen* euskara pixka bat gehiago gehitzea edo ehuneko berrogeita hamarrera iristea.

Beste adibide bat jartzearren. Ni harritzen nau ikusteak frankismo-garai bete-betean gure gurasoen belaunaldiak nola ikusi zuen eskolaren eredia euskara ardatz hegemoniko, nagusia eta bakarra zuena izan behar zela. Euskararen eremu hegemoniko horren alde egin zuen ikastolen sorrera bultzatuz. Ze intuizio sakon eduki zuten eskola elebidunei uko egin eta eskola euskaldunak sortzeko? Euren intuizioa izan zen euskalduntasuna erdian jarrita bakarrik sor ditzakeela eskolak euskaldun osoak, gune hegemonikoak sortuta bakarrik. Gero *Txepetxek hablante completo* euskaldun izendatuko zuen hori, ezta?

Gai horren inguruan ari gara gaur egun Garabiden munduko beste hizkuntza minorizatu batzuekin konpartitzen, adibidez. Harrigarri egiten zaie hegemonia-gunearen ikuspegia, planteatzen ari direlako gehienez ere gure *A eredu* batera iristea. Eta guk esaten diegu orain dela 50 urte diktadurapean geundela, baina *D eredutik* hasi ginela zuzenean. Gauza batzuetan eta espazio batzuetan dentsitate serio bat sortu ezean ez dela ekoizten ez hizkuntza-gaitasunik, ez nahimenik, ez erabilerarik.

Nolanahi ere, adibideetatik harago, gogoeta zabalagoa da. Hizkuntza batek ez baldin badu hegemonia gunerik edo dentsitate gunerik —eta esaldi honetan ez naiz ari derrigor hegemonia-gune nazional bati buruz hitz egiten, nazio batean nagusi izateaz—, hizkuntza horrek ez du ekoizten, ez hiztun osorik eta ez belaunaldi askotan jarraitzeko aukerarik. Eta ziur asko momentu honetan bizirik dauden hizkuntzak bizirik

daude hegemonia-guneak eduki dituztelako, orain dela oso gutxi arte. Zentzu horretan galdera bat planteatzen da: zer egiten dugu hegemoniaren gai honekin guk garbi baldin badaukagu Euskal Herrian euskara hizkuntza hegemoniko bezala jartzea momentu honetan gure ahalbide politikoetatik kanpora dagoela?

Nik hiru mailatan helduko nioke gai honi. Hiru maila hauek elkarrekiko kontraesankorrak dirudite baina modu dialektiko batean konbina daitezke:

1. Lurralde-hegemoniarik gabe bizitzen eta komunitate saretua izaten ikastea. Ikaste horretan, Imanol Minerrek eta beste batzuk garatzen dituzten ideien ildotik hainbat gauzek pista asko ematen dituzte. Hau da, gure kondizio minorizatua asumitzea posible da eta esatea: *saretu gaitezen mugimendu moduan hegemoniarik gabeko espazio horretan. Ikasi dezagun interneten ere gune izaten, eta bestelako sareak sortzen, asumituz hamarkada batzuetan ez dugula nagusitasunik izango eta sarea izango dela eusten gaituen egitura nagusia*. Arriskutsua dirudi badirudielako resignaziorako deia edo minorizazioa onartzeko dei bat dela, baina nik uste dut estrategia hori ere oso kontutan eduki behar dugula.

2. Bigarrena litzake beste muturrekoa, hori ere landu beharrekoa. Honakoa da: momentu honetan ez da politikoki bideragarria, baina has gaitezen geure burua formatzen eta belaunaldi berri bat birpolitizatzen eta formatzen hizkuntza-ekologian, noizbait hegemonialurraldearen gaia planteagarri izan dadin. Hor nolabait planteamendu politiko zabalagoetan sartzten gara, etorkizuneko agenda politikoan gai hau egon dadin momentu honetan posible ez den modu batean. Hau da, lortu beharko litzateke etorkizunean mahai-gainean egon dadin funtzio hegemoniko batzuk euskaratik garatzearen gaia. Hau epe luzeko estrategia bat da, baina presta dezagun jendea, koadroak, birpolitizazio ekologiko bat, ez dezagun ahaztu maila hau badagokiolarako euskarari, horra iristeko jarri baikara bidean.

3. Eta hirugarrenik tarteko ekinbide multzo bat. Uste dut gure estrategia izan behar duela gune hegemonikoak, *lurralde* hegemonikoak sortzea. Lurralde esaten dudanean ez naiz derrigor lurralde fisikoaz ari, bailara batez edo herri batez. Ari naiz modu metaforiko batean lurralde izan daiteken fakultate bat, unibertitate bat, telebista bat, eta abar. Eta zergatik ez gune geografikoez ere. Adibide modura esan daiteke momentu honetan Huhezi fakultatea euskararen lurralde hegemonikoa dela, euskaratik eta euskaraz bizitzeko hautua egin duen Euskal Herriko fakultate bat, zoritxarrez bakarra. Han

---

**Egin dena handia da, mundu-mailan gutxi dira horrelako berreskurapen-historiak herri ekimenean oinarrituak. Herri-bulkada zibilean eta bigarren fase batean herri-ekimen eta instituzio publikoen arteko konbinaketan oinarritu den hizkuntza-berreskurapenaren bidea izan da, partziala eta prekariora.**

**Hizkuntza batek ez baldin badu hegemonia gunerik edo dentsitate gunerik -eta esaldi honetan ez naiz ari derrigor hegemonia-gune nazional bati buruz hitz egiten, nazio batean nagusi izateaz-, hizkuntza horrek ez du ekoizten, ez hiztun osorik eta ez belaunaldi askotan jarraitzeko aukerarik.**

langile, ikasle edo administrazioko langile izateko euskaraz jakin behar da. Gero lan egiten dugu gaztelaniarekin, ingelesarekin eta portugesearekin, baina garbi dugu nondik ari garen eleaniztasunera irekitzen, euskaratik. Uste dut datozen hamarkadetan bide hori egin behar genukeela, lurralde hegemonikoak sortu, irabazi eta lotu. Hau da, euskararen hegemoniatik eleaniztasunera zabalduko duen unibertsitate bat izango dugu? Telebistak? Sorkuntza-guneak, era-kundeak, edo batzuk arnagune deitu ditzuten lurralde-esparruak... Iruditzen zait gune hegemonikoak sortzea eta saretzea izan behar duela etengabeko bidea.

Hiru maila horiek ez dira kontraesankorrak, lurralde hegemonikorik gabe bizitzen ikasi eta horretan saretzen asmatu, lurralde hegemoniaren gaia politikoki landu eta belaunaldi berri bat prestatu, eta gune hegemonikoak sortu, nazio-mailan eta herrietan, hirurak uztartu beharreko estrategia-moduan ikus litezke.

## MIGRAZIOAREN INGURUAN

Bi hitz migrazioen eta aniztasunen inguruan, denboragatik oso arin egin behar. Labur-labur esanda, iruditzen zait gai horretan ere teoria eta praktika gure esperientziari eta gure errealitateari egokituta ekoitzi behar dugula. Askotan ikusi dut, baita nigandik oso gertu ere, migrazioen, aniztasunaren eta kultura-aniztasunaren teoriak hartzen ditugula gure errealitatea kontuan izan gabe. Teoria politikoki oso politak izan daitezke, progresismoaren azken bertsio korrektoekin erabat bat egiten dutenak, hizkuntza hegemoniko handi bat duten hirietarako pentsatuta daudenak. Londresen ingelesak ez dauka bere hegemonia zalantzan. Baina gure kasua desberdina da. Hizkuntza minorizatu baten egoeratik, nola kudeatzen da kultura-aniztasunaren eta kultura-artekotasunaren gaia? Begiratzeko beste modu bat da, abantailak dituen, helduleku desberdinak dituen. Badugu pixka bat garatuta etika ekologikoa eta anfitrioi interesgarriak izan gaitezke euskaldunak beste hizkuntza batzuekin datozen migratzaileentzat, justu daukagun bagaje eta mindura etiko horretatik baditugulako sentsibilitate batzuk garatuta. Baina, aldi berean, beste alarma batzuk ere pizten dira gure kasuan, eta dinamika negatibo batzuk ere bai. Eta horregatik iruditzen zait honetan ere egin behar dugula gure liseriketa eta gure esperientzia propioa, modako kontzeptuak galbahean iragaziz eta esperientziatik sortuz. Izan ere, hizkuntzen berdintasuna kudeatzeari buruzko jakintza ekologikoa ez da

metropoli handietan sortu, ez sortuko ere. Beharrian zehatzei lotuta sortzen da. Eta beharriana guk daukagu, guk eta gu bezalako beste askok munduan.

## NAZIOARTEKOTASUNA

Iruditzen zait euskara oso koiuntura interesgarri batean dagoela bere dimentsio nazioartekoa garatzeko. Euskal Herritik internazionalismoa hamarkadetan garatu dugu: non zegoen ustezko iraultza bat? han ari gara brigadista moduan, Gobernu Kanpoko Erakunde bitartez, eta abar. Baina euskararen komunitateak badu beste nazioarteko dimentsio bat, eta komunitate moduan munduarekin konpartitzeko zer duen galde diezaioke bere buruari. Euskararen azken 50 urteotako esperientzia, aktibo berezia da nazioarteko hizkuntza minorizatuen plazan buelta bat egiteko.

Orain dela urte batzuk hasi ginen Garabiden gai hori garatzen eta egiten dugunaren inpaktua eta jasotzen duguna espero baino handiagoa da. Azken bost hamarkadetan euskarak garatutako estrategiak momentu honetan beraientzat garrantzizkoak dira: korpusean, hezkuntzan, komunikazioan, kultura-produkzioan, alfabetatze/euskalduntzean esate baterako. Berehala kateatzen dira herri indigenek dituzten behar eta planteamenduetara. Horregatik uste dut funtzio bat badukegula, eta harreman horretan jasotzeko asko dugula. Nazioartekotasuna lantzea beharrezko ekinbide bat dela esango nuke, gai hau ez delako gurea bakarrik, begiratu plantario batean kokatzea badelako honen dimentsio bat, eta energia sortzen delako hartze eta emate horretan.

## KULTURGINTZAZ

Euskal kulturgintzari lekua emango nioke gogoetan, beste gauza askoren artean kulturgintzak ekoizten duela hizkuntza-komunitate baten *gasolina sinbolikoa*. Hor ere baditugu alarma batzuk, euskal kulturgintzaren elementu batzuen penetrazioa gero eta txikiagoa delako, gaztelaniazko komunitatean lehen gure sarbidea asko galdu dugulako, euskararen komunitatean bertan ere gero eta zailagoa delako, esate baterako euskal kantagintzaren eragina erreproduzitzea. Kultur industriak ere arazo batzuk ditu, gizarte ohituren eta kontsumoaren aldaketak, teknologia aldaketak eta abar. Zailtasun batzuen aurrean gaude hemen ere.

Azken pare bat urtetan horretaz gogoetatxo bat egin dugu eta ondorio modura 16 oinarri eta 12 estrategia atera ditugu. Ez du ematen denborarik dena kontatzeko baina labur-labur batzuk esango ditut buruz.<sup>3</sup>

---

**Hiru maila horiek ez dira kontraesankorrrak, lurralde hegemonikorik gabe bizitzen ikasi eta horretan saretzen asmatu, lurralde hegemoniaren gaia politikoki landu eta belaunaldi berri bat prestatu, eta gune hegemonikoak sortu, nazio-mailan eta herrietan, hirurak uztartu beharreko estrategia-moduan ikus litezke.**



---

**Hizkuntza  
minorizatu baten  
egoeratik, nola  
kudeatzen da  
kultura-  
aniztasunaren  
eta kultura-  
artekotasunaren  
gaia?**

**Iruditzen zait  
honetan ere egin  
behar dugula  
gure liseriketa  
eta gure  
esperientzia  
propioa, modako  
kontzeptuak  
galbahean  
iragaziz eta  
esperientziatik  
sortuz.**

- Euskal kulturgintzak funtzio kualitatiboa du euskararen komunitatearen geroratzean eta ametsaren elikaduran
- Komeni zaigu kultura-politiketan hiru esparru bereiztea: 1) euskararen komunitateari darion euskarazko berbazko kultura, 2) erdaraz sortzen den berbazko kultura, eta 3) ez berbazko kultura. Kultura-politikarako baliabideak urriak dira, bai sozialak, bai publikoak, pertsonalak ala diruzkoak, eta jakin behar da zertan ari garen etorkizuna jokatzen eta zertan ez hainbeste.
- Euskal kulturgintzak bere ezaugarriak baditu, euskal hiztun komunitateari darion kulturak nerbio berezia du gauza batzuetan, jenio propioa beste batzuetan, ahulgune handiak beste batzuetan. Kontua ez da kanon guztiak betetzea, baizik eta jarridura eta irekidura konbinatuz ateratzen zaigunarekin konfidantzaz sortzea. Gizarte-ehuna da, gainera, hiztun komunitatearen egituran gako nagusietakoa, euskaldun izateko nahia erreproduzitzen den zirkuituak hor daude neurri handi batean. Eta gure sorkuntzaren potentzialak dinamika sozial horiei lotuta dira eraginkorrenak. Ikusi egin behar gure sorkuntza zenbateraino den euskaldun izateko konfiantza eta nahia erreproduzitzeko modukoa, zenbateraino den ona, zenbateraino sortzen dituen begiratu interesgarriak, zenbateraino den humanizatzailea.
- Kulturgintza hau bere ezaugarri eta baldintza guztiekin desafio berrien aurrean dago. Batetik, gizarte-aldaketek belaunaldi berriei eragiten dietelako hainbat parametro aldatuz eta, bestetik, teknologia-aldaketek ere desafio eta aukera berrien aurrean jartzen dutelako.

## **ERAKUNDE-ANALISIAZ**

Bestalde, euskal kulturgintzari eta euskararen komunitateari begira analisi instituzionala egiterakoan komeni zaigu gure gizartearen botere-guneen argazki bat egiteko plantila on bat izatea. Botere-gune nagusia gauden sistema ekonomikoan kapitala da, eta bere logika zehatz bat du, logika lukratiboa: egiten dena dirua irabazi nahi delako egiten da, ez bakarrik multinazionalak, baita ere zapata-dendatxo bat bere herrian jartzen duen edonoren kasuan ere. Bigarrenik, Estatua. Bere logika administratibo edo burokratikoarekin bigarren botere-iturria da: erakunde publikoen sarea. Hirugarrenik, gizarte antolatua ere erlatiboki botere-iturri autonomoa da, tamainan eta gaitasunean aurreko biekiko beste parametro batzutan badabil ere. Publiko-pribatu biomioan kokatzen badugu dena, pribatua diogunean lukratiboa adieraziz, ez dugu gauza

asko ulertzen. Eta bereziki euskal komunitatearen dinamiketan ez dugu ia ezer ulertu. Ez da kontu hutsala analisi instituzional serioago bat izatea, ideologia sozialista eta liberaletatik harago. Gizarte antolatuaren zirkulua osatzen dute logika lukratibo edo logika administratibotik at sortzen diren errealitate eta botere-guneek, beste logika askoren arabera antolatuta daudenak, hain zuzen, gizartearen parte handi edo txikien ekimen ez lukratiboen gama osotik. Hau Euskal Herrian ulertzeko erraza da. AEK ez zen sortu norbaitek inbertitu zuelako dirua irabazteko, ez eta estatutik ere. AEK sortu zen gizarte-logika batetik, logika estatal nahiz lukratiboarekiko autonomia den logika batetik. Ikastolak ere esparru honetatik sortu ziren. Euskaingintzan sortutako gehiena gizarte-antolaketatik sortutako botere-gune txikiz osatuta dago. Beste kontu bat da hor ere intersekzioak daudela, eta normalean espazio konpartituak sortzen direla gizarte antolatuaren logikaren, logika administratiboaren eta merkatu-logikaren artean.

Komeni da ikustea Euskal Herria gizarte antolatuaren botere-gune bereziak dituen gizarte bat dela oro har, ez euskaingintzan bakarrik, mundu mailan leku aipagarria kontu honetan, eta bereziki euskararen komunitatearen egitura instituzionalari begiratzen baldin badiogu hortik asko daukagu. Komeni dela diot, bi gauzogatik, batetik estrategiak abiarazteko behar dugulako zer dugun jakin, eta bestetik, mundu mailako gogoeta politikoan analisi instituzional mota honek gero eta garrantzi handiagoa izateko itxura duelako. Euskaingintzaren indargune gehienak gizarte antolatuaren esparru horretan daude. Gera gaitezen datu horrekin.

Hizkuntza-politika eta kultura-politika zehatzak, organikoak, pentsatzeko beharrezkoa zaigu argazki hori eta beste batzuk. Pentsatzeko zein den administrazioaren lekua, galdetzeko adibidez hizkuntza-komunitatearen lidergo sinbolikoa nori dagokion. Hizkuntza-komunitatean gidaritza sinbolikoa non dago, hau da, Euskal Erkidego Autonomoko lehendakaria da gure hizkuntza-komunitatearen gidaria? Ez naiz ari Lopezi buruz, berdin galde daiteke Ibarretxeren garaian, bai hurrengo hamarraldian Urkullu edo Otegi balego ere kargu horretan. Zein da administrazioaren papera eta zein hiztun komunitatetik berariaz euskararen ausporako sortutako erakunde sozialen papera hiztun komunitate honen erreferente izaterakoan? Ze egitura du gure hiztun komunitateak, eta ze egitura ditu? Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren funtzioez ere esan litezke gauza batzuk, baditut kezka batzuk horretan.

Bukatzeko, saltokako errepaso honetan gizarte-ehunaren garrantzia aipatuko nuke. Euskararen komunitatearen geroratzean gertuko gizarte-ehunak garrantzi handia du, eta hala izango du itxura guztien arabera,

---

**Euskararen  
azken 50  
urteotako  
esperientzia,  
aktibo berezia da  
nazioarteko  
hizkuntza  
minorizatuen  
plazan buelta bat  
egiteko.**

**Euskalgintzan  
sortutako  
gehiena gizarte-  
antolaketatik  
sortutako botere-  
gune txikiz  
osatuta dago.**

gure prozesuen prospektiba apur bat egiten badugu. Alde batetik, gizarte indibidualizatu eta anomikoagorako joera globala hor dugu, gizarte fragmentatuagoa, zapping kulturean jarduten duena, kontsumo indibidualizatuan oinarritua. Bestetik, garrantzia du ohartzeak euskal hiztun moduan bizitzeak eskatzen duen hautua zirkuitu sozialetan erreproduzitzen dela, eta bere bideak dituen kapital sozial jakin bat daukala euskal hiztun komunitateak.

Bi errealitate horiek hartu behar ditugu kontuan, hiztun komunitatearen etorkizuneko norabideak hartzerakoan. Asmatu behar da euskara gizarte fragmentatuago eta anomikoagoaren dinamiketan ere kokatzen, eta interneteko itsasoan gure tantatxoak eskaintzen, baina aldi berean jakinik bide horretatik bakarrik ez dugula zereginik. Nolabait, beste plano batean, euskaren zoria gizarte-ehunaren zoriari ere lotua dago, bestelako herrigintza- eta gizartegintza-sare bati ere lotuta. Horregatik iruditzen zait gizarte-analisi miopea egiten dugula sarri, munduko tententzia handien aplikazioan bakarrik pentsatuz. Horrekin batera, gure hiztun komunitatearen potentzialak eta zirkuituak zein diren, motibazio-iturriak nola birsortzen ari diren eta beste hainbat gauza behatu behar ditugu. Eta xake taulan peoiak mugitu.

## **AURREKO BELAUNALDIAREN ETA DATORRENAREN ARTEAN KOKATUZ**

Trantsizioko belaunaldiari aitormen egitea sen onekoa iruditzen zait. Aldi berean, komeni da ikustea gauza askotan amets nerabeen belaunaldia izan zela, handiuste xamarra, eta ez zuela asmatu askotan ametsetik errealitatera dauden distantziak neurtzen.

Iraultza sozialistaren utopia-kimera da adibide paradigmaticoena, baina joera oso baten erakusle da berau. Planteamendu potoloetatik benetako gaitasunera amildegi bat zegoen gai askotan. Aberriari eta hizkuntzari lotutako ametsen ere izan da ingenuitate-frustrazio prozesurik urteotan, eta oraindik ere herrigintzaren aurrean kokatzeko modu horrek indarrean dirau beste maila batean.

Amets lodiegien belaunalditik etortzearen arriskua da amets berri oro inozotzat jotzeko joeran erortzea. Utopia-tentsioa beharrezkoa da, ametsik gabe ez da pausorik ematen. Nik uste dut amestea ezinbestekoa dela, ametsik gabe ez dela aurreratzen, beti behar duzula egiten duzuna baino zailagoa den pausu bat emateko amets bat, irudikapen bat, zerumuga bat. Zerumugak, gaur egun, zabalak behar dute izan, lausoagoak, ez garelako lehen bezain gizarte solido batean bizi, eta dibergentziak

aguro ematen direlako. Bestetik, zerumuga zabal horien barruan amets doituak koka litezke, ajustatuak, belaunaldien eta kolektibo jakinen ahalbide biografikoei lotuak. Amets doituak eta ortzimuga lausoak. Amets doitu egokien adibide batzuk baditugu hamarraldi hauetan. Hitzun komunitatearen boteregune, dentsitate-gune edo ahalmen-guneak eta estrategiak sortzen joateko garaia da.

Koiuntura politiko berrian gaude. Ez nuke itxaropen gehiegi jarriko, hala ere, joko politiko-instituzionalean. Egingo du bere bidea, baina planteamendu politiko alderdikoiei beren bidea egiten utziz, eta horiekiko autonomiaz, momentu honetan hizkuntza-komunitatearen ametsa ekoiztu behar dugu berriro. Nik uste dut horretarako minbreak baditugula, amets-horizonte bat sortzeko gure hizkuntza-komunitatean, eta energiak horretara bideratzeko, gure politikaren muinera. Gainera iruditzen zait amets hori beste gauza askorekin konektatuta dagoela, beste maila askotako kontzientzia humanizatzaile eta ekologiko baten ildoan doala.

Desabantaila eta baldintzazamendu asko dugu une honetan hitzun komunitate moduan. Potentzial partzial batzuk ere bai. Adibidez, gure hizkuntza-eremuan auto-organizazioa handia da, herri-ekimenetik erakunde sozialak sartzeko gaitasuna dugu, eta hau ikuspuntu unibertsal batetik aipagarria da gure indargune moduan. Beste kontu bat da egin dezakegunaren mailara iristen garen ala ez. Nik uste dut ezetz, baina oinarri batzuk badira. Esate baterako tokian tokiko euskara-elkarteen *Topagunea* hor dago, eta hori gero eta sare garrantzitsuagoa izan liteke, eta beste hainbat ere bai. Gizarte antolatua ikuspegitik, saretutako euskalgintza zabala eta askotarikoa da. Munduko beste hizkuntza komunitateetako gure bilakaera azaltzeko klaseak prestatzeko-eta sintesiak egiten ibili garenean, azaltzen zaizu komunikazio-arloan, *corpusaren* arloan, hezkuntzaren arloan, kultura-produkzioan, alfabetatze-/euskalduntze-arloan, gehienak nolabaiteko auto-organizazioz eratutakoak dira. Beraz, zuntz batzuk baditugu. Sare horren eta botere publikoen arteko funtzio banaketan, egin litezke kilometro batzuk.

Mugimendu horrek, gauza modu sinplean esanda, ez du beti asmatu ezker abertzalearen eta nazionalismo klasikoaren arteko estrategia-talkan kokatzen. Eta etengabe eduki du nolabaiteko grabitazio indar bat alde batera edo bestera kokatzeko. Ez du asmatu bere arloan gidoia markatzen, diskurtso beregain bat egiten, uste dut oraindik ere ez dela ari asmatzen. Batzuk bai, gehienak jadanik, baina ez oro har, eta koordinazio-gunea ere ez, inertzia ideologiko dexente dago martxan.

Nire ustez *Kontseiluaren* funtzioetako bat hori litzateke. Euskararen Gizarte Erakundeak dira euskararen komunitateak sortutako berariazko

---

**Trantsizioko  
belaunaldiari  
aitormen egitea  
sen onekoa  
iruditzen zait.  
Aldi berean,  
komeni da  
ikustea gauza  
askotan amets  
nerabeen  
belaunaldia izan  
zela, handiuste  
xamarra, eta ez  
zuela asmatu  
askotan  
ametsetik  
errealitatera  
dauden  
distantziak  
neurtzen.**

**Gauzak ez dira bide onegitik joan nire ustez, baina egitura bera egokia da. Iruditzen zait horretarako garaia datozela. Euskararen mugimendu honetan diskurtso politiko autonomo bat egiten hasteko garaia ere bai, eta norabideak markatzen hastekoa.**

tresna antolatuak, eta horiek guztiak bildu eta ordezkatzeari berebiziko arduraren aurrea. Hori arloka antolatu, sektorekako estrategiak martxan jarri eta hiztun komunitatearen geruza antolatuaren ahotsa izatea ez da edozer gauza. Gauzak ez dira bide onegitik joan nire ustez, baina egitura bera egokia da. Iruditzen zait horretarako garaia datozela. Euskararen mugimendu honetan diskurtso politiko autonomo bat egiten hasteko garaia ere bai, eta norabideak markatzen hastekoa. Ez dut esaten apolitikoa, euskara ez baita apolitikoa, baizik eta gure hiztun komunitatearen politikaren muina. Diskurtso politiko beregain bat egiten eta beregain-tasun horretatik bereziki geure espazioa artikulatzen has gaitezke, orain arte baino hobeto. Gu ez bagaude artikulatuta, trinkotuta, ez dezakegu egin kanpora begirako diskurtsorik. Eta momentu honetan kanpora begirako gure diskurtsoa ahula da. ●

#### **OHARRAK**

1. Artikulu hau 2011ko uztailaren 8an U.P.V./E.H.U.ren XXX Uda Ikastaroak/XXIII Europar Ikastaroak egitarauaren barruan Soziolinguistika Klusterrak antolatutako *Hizkuntza-ekologia: teoritik praktikara* ikastaroan ahoz emaniko hitzaldiaren transkripzioan oinarritzen da. Ikus <http://www.sociolinguistika.org/eu/ehuikastaroa>.
2. Jon Sarasua informazio zientzietan doktore da. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKO irakasle, bertsogintzan oso ezaguna, Lanke kooperatibintzan aritu da eta Garabide erakundearen sortzaileetakoa.
3. HUHEZI-k eta SORGUNE ikertegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez buruturiko lana: *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*. 2010. (Argitaratu gabea).